EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
*Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
*Dirección de Política Familiar y Desarrollo Comunitario*

29 JUL 2016

IRTEERA Zk. 226758

SOCIEDAD DEPORTIVA SAN IGNACIO BEISBOL
Larrako Torre, 2 bis, 3° A
48015 BILBAO
BIZKAIA

Agur, jaun/andrea:

Idazki honekin batera, elkarte hori Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean inskribatu dela dioen Ebazpena bidaltzen dizut.

Irailaren 1eko 169/2000 Dekretuak ezarritakoaren arabera, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorraren funtzionamendu-araudia onartu eta boluntariotzari buruzko zenbait alderdi arautzen dituen 3. artikuluaren arabera, ebazpen honek eskubide hauek erabiltzeko aukera ematen dizu: Boluntariotzako Euskal Kontseiluan parte hartzeko eta administrazio publikoek beren eskumenen barruan diru-laguntzak emateko eta jarduerak sustatzeko egiten dituzten programetan esku hartzeko.

Adeitasunez,

Estimado/a Sr./Sra.:

Junto con el presente escrito, adjuntamos Resolución original de la inscripción de su entidad en el Censo General de Organizaciones de Voluntariado.

Dicha Resolución posibilita a su organización, en virtud de lo dispuesto en el art. 3 del Decreto 169/2000, de 1 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de funcionamiento del Censo General de Organizaciones del Voluntariado, a estar presente en el Consejo Vasco del Voluntariado y a acceder a las medidas de fomento y programas subvencionados que realicen las Administraciones Públicas en el ámbito de sus competencias.

Atentamente,

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 27an.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Eva Mª García Solana, teknikaria

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 94 25 – Fax 945 01 63 40 – E-mail: familia@ej-gv.es

*EBAZPENA, 2016ko uztailaren 27koa, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendariarena, SOCIEDAD DEPORTIVA SAN IGNACIO BEISBOL boluntariotzako erakundeen errolda orokorrean inskribatzen duena.*

*RESOLUCIÓN de 27 de julio de 2016, del director de Política Familiar y Desarrollo Comunitario, por la que se inscribe en el censo general de organizaciones del voluntariado a SOCIEDAD DEPORTIVA SAN IGNACIO BEISBOL.*

Bizkaiko **SOCIEDAD DEPORTIVA SAN IGNACIO BEISBOL** izena duen elkartea Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean inskribatzeko, espediente bat hasi da elkarte horren eskariz, honako hauek direla:

En relación con el expediente incoado a instancia de la entidad **SOCIEDAD DEPORTIVA SAN IGNACIO BEISBOL**, de Bizkaia, para la inscripción de la misma en el Censo General de Organizaciones del Voluntariado, y en base a los siguientes:

## AURREKARIAK

I.- SOCIEDAD DEPORTIVA SAN IGNACIO BEISBOL izenekoa, helbide soziala Bilbon duena, legalki elkarte bezala eratuta dago, eta beharrezko ondorioetarako, dagokion Erregistroan izena emanda, CD0000414 zenbakiaz.

II.- Erakunde horrek, irabazi asmorik gabekoa, besteak beste adimen mugatua duten pertsonen arloan dihardu, eta bere estatutuetan agertzen diren helburu guztiak edo batzuk lortze aldera, boluntarioekin batera garatzen ditu egitarauak edo partaidetzako proiektuak, hori guztia Boluntariotzaren ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 3. artikuluan definitutako interes orokorreko jardueren barruan.

III.- Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako eskuduna den zerbitzuak aztertu ditu aurkeztutako agiriak, erakunde eskatzailea Boluntariotzaren 17/1998 Legearen aplikatze-eremuan dagoen egiaztatzeko, baita

## ANTECEDENTES DE HECHO

I.- La organización denominada SOCIEDAD DEPORTIVA SAN IGNACIO BEISBOL, con domicilio social en Bilbao, se halla legalmente constituida como asociación y a efectos, consta inscrita en el correspondiente Registro con el nº CD0000414.

II.- Dicha entidad sin ánimo de lucro, desarrolla sus funciones, entre otros en el ámbito de las personas con inteligencia límite y para la consecución de todos o algunos de los fines que figuran en sus Estatutos, desarrolla programas o proyectos participados por personas voluntarias, en el marco de las actividades de interés general definidas en el artículo 3 de la Ley 17/1998, de 25 de junio, del voluntariado.

III.- Por el Servicio competente en materia de Política Familiar y Desarrollo Comunitario, se ha procedido a analizar la documentación presentada, a fin de comprobar si la entidad solicitante está incluida en el ámbi-

irailaren 1eko 169/2000 Dekretuko 6. artikuluan aurreikusitako betebeharrak betetzen dituen ala ez ikusteko (dekretu horren bidez, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorraren funtzionamendu-araudia onartu eta boluntarioen ekimenei buruzko zenbait alderdi arautzen dira).

to de aplicación de la Ley 17/1998, del Voluntariado, y si reúne los requisitos previstos en el artículo 6 del Decreto 169/2000, de 1 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de funcionamiento del Censo General de Organizaciones del Voluntariado y se regulan determinados aspectos relativos al Voluntariado.

## OINARRI JURIDIKOAK

<u>LEHENENGOA</u>.- Espediente hau, horretarako ahala duten pertsonek sustatu dute, eta berori erabakitzeko funtsezkotzat jotzen diren agiri eta xehetasun guztiak gehitu zaizkio.

<u>BIGARRENA</u>.- Boluntariotzari buruzko 17/1998 Legean ezarritakoaren arabera, erakunde eskatzailea lege horren aplikazio-eremuan sartuta dago, eta erroldan inskribatzeko behar diren agiriak aurkeztu ditu, irailaren 1eko 169/2000 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

<u>HIRUGARRENA</u>.- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organiko eta funtzionala finkatzen duen apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuaren 15. artikuluak Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendariari ematen dio inskripzioaren bidezkotasuna erabakitzeko eskumena.

Horren guztiaren ondorioz,

**ARAU HAUEK IZAN DIRA KONTUAN:** ekainaren 25eko 17/1998 Legea, Boluntariotzarena; irailaren 1eko 169/2000 Dekretua, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorraren funtzionamendu-araudia onartu eta boluntariotzari buruzko zenbait alderdi arautzen dituena; lehen aipatutako 191/2013 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea; eta aplika daitekeen gainerako legedia. Horiek horrela, hau

## FUNDAMENTOS JURÍDICOS

<u>PRIMERO</u>.- El presente expediente ha sido promovido por personas legitimadas para ello, y al mismo se han aportado cuantos documentos y datos se consideran esenciales para su resolución.

<u>SEGUNDO</u>.- De conformidad con lo dispuesto en la Ley 17/1998, del Voluntariado, la entidad solicitante se encuentra incluida en el ámbito de aplicación de dicha Ley, y ha aportado la documentación requerida para la inscripción en el Censo, de conformidad a lo dispuesto en el artículo 6 del Decreto 169/2000, de 1 de septiembre.

<u>TERCERO</u>.- El artículo 15 del Decreto 191/2013, de 9 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Empleo y Políticas Sociales, atribuye al/a Director/a de Política Familiar y Desarrollo Comunitario la competencia para resolver sobre la procedencia de la inscripción solicitada.

En virtud de cuanto antecede,

**VISTOS** la Ley 17/1998 de 25 de junio, del Voluntariado; el Decreto 169/2000, de 1 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de funcionamiento del Censo General de Organizaciones del Voluntariado y se regulan determinados aspectos relativos al Voluntariado; el Decreto 191/2013 citado; la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y demás legislación aplicable,

**EBAZTEN DUT**

Bizkaiko **SOCIEDAD DEPORTIVA SAN IGNACIO BEISBOL** izeneko elkartea Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean inskribatzea, honako zenbaki honekin: **368-2016-B.**

Inskripzio hau egiteak ez du inola ere elkarte hori dagozkion betebeharrak betetzetik libre uzten, zergen arlokoak, lanekoak, Gizarte Segurantzakoak edo araudi orokorrekoak nahiz -lortu nahi den helburuagatik edo xede sozialak lortzeko egiten dituen jarduerengatik- erakunde horri aplika dakiokeen araudi sektorialekoak.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari, eta horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politikarako sailburuordeari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 27a.

**RESUELVO**

Inscribir a la entidad denominada **SOCIEDAD DEPORTIVA SAN IGNACIO BEISBOL** de Bizkaia, en el Censo General de Organizaciones del Voluntariado, con el nº **368-2016-B.**

La presente inscripción no exonera en ningún caso a dicha entidad del cumplimiento de las obligaciones de carácter tributario, laboral, de Seguridad Social o de cualquier tipo que vinieren impuestas por la normativa general o sectorial aplicable a la misma, bien por el objeto que persiga o por razón de las actividades que desarrolle para la consecución de sus fines sociales.

La presente resolución no agota la vía administrativa, y contra ella cabe interponer recurso de alzada ante la Viceconsejera de Políticas Sociales del Gobierno Vasco, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Vitoria-Gasteiz, 27 de julio de 2016.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Izp. / Fdo.: Jose Javier Miguel de la Huerta
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria
Director de Política Familiar y Desarrollo Comunitario